

LANGILE MUGIMENDUA

XX. mendearen hasieran, langilerik gehientsuenak enpresa txikietako enplegatuak baziren ere, industria kapitalista handiak beste klase sozial berri bat sortu zuen: langileria (proletarioak).

Langileriaren hiru alderdiak

a/ Langile askok hirietako artisau-lanetan ziharduten: altzarigintzan, etxegintzan, jantzigintzan, bitxigintzan, moldiztegia... Korporazioari zegozkien tradizioei hertsiki lotuta zeuden. Ogibide bereko lankideen eskutik ikaskuntza luzea jaso ondoren bihurtzen ziren ofizial.

Sarritan lanerako tresnen jabe ziren, lana ondo egitea gustuko zuten, langile-aristokrazia oso solidarioa osatzen zuten, nolabait.

b/ Etxeko langileek osatzen zuten bigarren kategoria hau: ehungintzan ugari zirela, herri txikietan eta hirietako lantegi xumeetan egiten zuten lan. Lantegi horien jabe ziren maiz askotan eta eginkizun latz eta debalutua bete behar izaten zuten: fabrikatzaile handiek lehengaia eskuratu eta, landu ondoren, produktu bukatua jasotzen zieten hutsaren hurrengo ordainduta.

c/ XIX. mendearen amaieran oraindik oso ugari ez izaki, fabriketako langileek osatzen zuten hirugarren kategoria. Hirietan kokatu ziren, lantegi handien inguruetan. Beren lan-indarra besterik ez zuten, eta enpresa-arautegi zorrotzak bete behar zituzten. Beren bizimodua, ordea, ez zen etxeko langileena baino apalagoa; askok baliabide osagarriak ematen zizkien baserri-giroari atxikiak zeuden oraindik.

Proletarioak bi azken kategoriotako langileak ziren.

Bizi-baldintza eskasak

a/ Inbertsioaz eta ekoizpenaz buru-belarri arduraturik, patrioiak ahalik soldata murriztenak ordaintzen saiatzen ziren. Horrenbestez, krisia edo langabezia agertu eta, ondorioz, familia osoak pobrezia gorrian amildurik geratzen ziren. Gasezko argiztapenari esker, lanaldia luzatu egin zen, eguneko lan-jardunak hamabost ordu irauteraino.

b/ Hasieran langileei bizitokiak eskaintzeko deus ere aurreikusirik ez zegoenez, beren osasunarentzat arras kaltegarriak ziren auzotegietan kokatu ziren, elkar gainka, meategi eta fabriketatik gertu. Zerga astuna ordaindu behar izan zieten langileek gaixotasunari, istripuei, delinkuentziari.

c/ Ordena publikoa haustearen susmagarri bihurturik, langileria poliziaren kontrol hertsipean geratu zen.

Emakumearen eginkizun berria

Tradizioz, emakumerik gehientsuenek nekazaritzan jarduten edo etxera ekarritako lanak egiten zituzten. Gutxi batzuek aberatsen etxeetan ziharduten, neskame gisa. Nekazaritza-iraultzak, ordea, laborariaren eskulanaren premia urritu egin zuen; aldi berean, fabrikak lan-prozesua biltzen zuen eta etxera ekartzen ziren lanak gero eta urriagoak ziren. Ekonomia berri horretan familiaren sostenguan laguntzeko, emakume asko sartu ziren meategi eta fabriketan, lanean. Sarritan, familia osoa aritzen zen lantoki berean. Meategian, adibidez, gizasemeek pikatu, emakumeek organ eraman eta umeek sailkatu egiten zuten ikatza.

Fabrikako lanean aritzeak zama berriak ekarri zizkien emakumearen ardurei. Etxetik kanpo 12-16 orduz egiten zuen lan eta familia zaintzeaz gainera, etxean sukaldeko eta garbiketako lanak egin behar izaten zituen. Gehiegizko karga hori langile-azotegietako bizi-baldintzek okertu egiten zuten. XIX. mendearen amaierarako, hala ere, herri industrializatuetakoko langilearen soldatak eta bizi-baldintzak hobetu zirenean, familia osoa soldata bakar batetik bizi zitekeen. Horrela sortu zen beste familia mota bat: senarra zen etxetik kanpo lan egiten zuen bakarra eta emaztea etxean geratzen zen. Horrekin batera, hirian mirabe gisa lan egiteko eskakizunak gora egin zuen, klase

ertaineko familia askok sukaldariak, neskameak eta inudeak izan zitzaizketelako etxean. Emakume ugari –ezkongaiak, gehienbat– beren etxeak utzi zituzten horrelako lanetan sartzeko. Britainia Handian, esate baterako, XIX. mendearen bukaeran, etxez kanpoko lanean ari ziren hiru emakumetik batek besteren etxean ziharduen neskame. Klase ertaineko emakumerik gehien-gehientsuenek ez zuten lanik egiten; ezkontzea eta seme-alabak ekartzea bihurtu ziren haien eginkizun garrantzitsuenetakoak.

Baserri-munduaren bilakaera luzea

Industria Iraultzaren aldakuntzak baserri-mundua ukitu egin zuen, baina oso era motelean, tradiziozko bizimoduarekiko atxikimendu sendoa baitzuen. Baserritar gutxi ireki zitzaizkion atea ekonomia berriari.

Berrikuntzaren aurrean zuhur eta eskura kapitalik gabe, baserritarrek mantso onartu zituen teknika modernoak. Familiartekoen lanari, lanabesak arduraz zaintzeari eta autonomia bermatzen zion laborantza aniztunari esker zirauen bizirik. Gehiegizko zama demografikoaren biktima izaki, herri txikiak askok hirietara jo behar izan zuen. XIX. mendean, hego eta ekialdeko Europako nekazaritza oso tradizionala zen oraindik. Sekulako sailtan antolatuta, familia aberatsen ondarea zen lurra. Miseria baten truke lanean ari ziren langileek lantzen zituzten sail eskerga horiek. Errusian 1861 arte egon zen indarrean morrontza.

Mendebaldeko Europako laborari xumeak ere tradiziozko nekazaritzan ziharduten, laboreak (garia, zekalea) eta azienda zainduz, bereziki: hala ere, bizirik irautea besterik ez zuten lortzen. Haien metodo eta lanabesak mendeetan zehar ezer gutxi aldatu ziren.

Europako ipar-mendebaldean egoera bestelakoa zen. Arestian esan dugun bezala, XVIII. mendean, metodoak hasi ziren aldatzen Ingalaterran. Lur-sailak itxituraz mugatzeak, txandakatzeko konplexuagoen sarrerak eta beste alderdi batzuek abeltzaintzaren garapena ahalbidetu zuten. Aldakuntza horiek XIX. mendean Frantzia, Belgika eta Alemaniako mendebaldean izan zuten eragina.

Nekazaritza industrialerako urratsa

1830etik aurrera, eskulanaren gabeziari aurre egiteko, makina berriak asmatu ziren Estatu Batuetan: segamakina 1833an, sega-makina gari-jotzailea 1855ean. Makina horiek Europara zabaltzen ziren geroago. Lurrin-makina ere erabiltzen hasi zen: alea eta lastoa bereizten zituzten gari-jotzaile mekanikoak, adibidez. Hala ere, gasolinazko traktorea asmatu arte (1892), animalia izan zen indar-baliabiderik erabiliena.

Nekazaritzak gero eta ongarri gehiago baliatzen zuen: hasieran, naturalak (guanoa, esate baterako); industria kimikoak hornitutako artifizialak, geroago. Ekoizpenak ugaltzen ziren eta landare-izurrite eta aberearen gaitzen kontrako tratamenduak asmatu zituzten kimikariek, elikagai gehiago eta hobeak lortzeko ahaleginetan.

Horrelako aldakuntzei esker bizi-itxaropena luzatu egin zen. Trenbideak produkzioa urruti saltzea ahalbidetu zuen; nekazaritza, hortaz, merkataritzako bihurtu zen, hein batez. Nekazari aberatsek soilik zeuzkaten, ordea, horrelako aldaketak egiteko beharrezkoak ziren kapitalak. Laborari xume gehientsuenak aurrerakuntza horretatik kanpo geratu zirenez, etorkizun nekezagoa izango zuten. 1850etik aurrera baserri-munduko exodoa areagotu eta Europako eskualde guztietara hedatu zen. Eskualde txiroetako nekazariak hirietara emigratu behar izan zuten, bertako fabriketan lan egiteko. Baserri-munduko biztanleria bakandu egin zen, nabarmen.

Langileriaren borroka: sozialismoa eta anarkismoa

XIX. mendearen hasieran langileek ahalegin handiak egin behar izan zituzten haien artean elkartzeko eta antolatzeko. Izan ere, etxean lan egiten zuten eskulangileak eta fabrikakoak ez zuten elkar ulertzen, eta Europako estatu guztietan langileen grebak eta elkarteak debekatuak zeuden. Miseriaren eta langabeziaren aurrean, bat-batean erreakzionatu zuten langileek samaldan: lanik

ezaren errudun nagusitzat jota, makinak suntsitu egin zituzten; lan-baldintzak gogorregiak izaki, soldatak etengabe beheraka ari zirenez, greban jarri ziren. Sekulako zapalkuntza jasan zuten mugimendu horiek: Lyonen, esate baterako, armadak odoletan ito zituen zetagintzako langileak 1831n, eta 600 lagun baino gehiago hil zituen .

Herrialde guztietako intelektualek, langileriaren miseriak ukiturik, gizarte industrialia justiziazko oinarrien gainean eraikitzea proposatu zuten. 1830etik aurrera, horrelako ideiak sozialismo izenarekin ezagutu ziren.

Karl Marx-ek eta Friedrich Engels-ek, biak alemanak, 1848an *Manifestu komunista* eman zuten argitara . Bertan, dirua (kapitala), makinak eta fabrikak dauzkaten burges kapitalistentzat lanean ari diren langileek ondasunak (elikagaiak, jantziak, tresnak eta bestelako gauzak) ekoizten dituztela adierazten zen. Langileak, etekina ateratzeko asmoz burgesen klaseak esplotatzen zituen proletarioak ziren: bidegabeko egoera hori zen langileriaren miseriaren erruduna.

Gizakien zoriona erdiesteko jomugaz, behar-beharrezkoa zen iraultza egitea: burgesia hankaz gora jarri behar zuten proletarioek. Langileak bere burua prestatu behar zuen iraultza egiteko, eta, horretarako, alderdi iraultzaileak sortu behar zituen. Erabateko iraultza haren helburua gizarte berria eratzea zen: gizarte komunista hartan inor ez zen esplotatua izango.

Sozialistek bezala, anarkistek ere kritikatu zuten kapitalismoa, baina ez zuten batere sinesten alderdi politikoetan, ez eta –sozialisten agintaritzapean bazegoen ere– Estatuan ere. Sindikatuetan ziharduten batez ere, eta kapitalismoaren behin betiko gainbehera ekarriko zuen greba handia egitea zuten itxaropena. Mugimendu horren teoriko behinenak Bakunin errusiarra eta Proudhon frantsesa izan ziren.

Marxek 1848an aldarrikatutako “Herrialde guztietako proletarioak, elkar zaitezte!” hark erroak bota zituen Londresen 1864an sortutako Langileen Nazioarteko Elkarte izeneko batean; horretan, Marxen eta Proudhonen ideien jarraitzaileak bildu ziren. Ez bataren aldekoek ez bestearenek lortu zuten arrakastarik eta, horrela, I. Internazionala desagertu egin zen 1876an.

II. Internazionala sortu zen handik 13 urtera, Marxen jarraitzaileak gehiengoa izaki: Internazional Sozialista. Mugimendu sozialistaren ahalmena gero eta handiagoa zen, kontserbadore eta liberalen kezkarako.

Alemaniko Alderdi Sozialdemokrata eta Ingalaterrako Alderdi Laborista izan ziren Internazional Sozialistaren alderdirik garrantzitsuenak. Frantzia, berriz, sozialistak 1905ean elkartu ziren Langileen Internazionalaren Atalean, Jean Jaurès-en zuzendaritzapean. Errusian, alderdi sozialista oso ahul zegoenez, zatikaturik geratu zen: mentxebikeak (gutxiengoa) alde batetik eta boltxebikeak (gehiengoa) bestetik.

1880tik 1914ra arte, grebak larritu egin ziren. 1886ko maiatzaren 1ean, zortzi orduko laneguna errebindikatzen ari ziren manifestari asko hil zituen Chicagoko poliziak. 1890etik aurrera, haien omenez, II. Internazionalak maiatzaren lehena langile-errebindikazioen eguna izendatu zuen.